




Parkearen mugaleroa / Limite del Parque

LAU HAIZETA  
INGURUAK  
BISITATUZ



VISITANDO EL  
ENTORNO DE  
LAU HAIZETA



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de Donostia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA  
ETA INGURUGIRO SAILA  
Ingurugiro Sailordetza

DEPARTAMENTO DE URBANISMO,  
VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE  
Viceconsejería de Medio Ambiente

**haizea**

Ikerketa Dokumentazio Zentrua

Peña y Gami, 13 - 1º - 20002 - Donostia - ☎ 320914 - Fax 321781

Lau Haizeta Koordinakundea  
Coordinadora Lau Haizeta

ARTIA S.A.S. - Leizor, Don.



LAU HAIZETA  
INGURUAK  
BISITATUZ



VISITANDO EL  
ENTORNO DE  
LAU HAIZETA

# Gotorlekuen • ibilbidea •



Gazteluko galtzada airetik ikusita  
*Vista aérea de la Calzada de Pelegrinene*

## *Itinerario de los fuertes*

## IBILBIDEARI BURUZKO OHARRAK

### Ibilbidearen ezaugarriak / Características del itinerario

- Desmaila / *Desnivel*: 300 m
- Distancia total / *Distancia totala*: 15 km
- Ibilaldiaren iraupena / *Duración del recorrido*: 3h 30'



Pelegríneneko gurutzea gertutik ikusita.

*Detalle de la cruz de Pelegríne.*

### Irispideak / Accesos

Gainerantzeko ibilbideetan adierazitako edozein, gehi ondokoak:  
*Cualquiera de los marcados para el resto de los itinerarios y además.*

#### • Martutene

27 Poligono-tik abiatuz parkean barneratzen den errepeida hartu  
*Tomar la carretera que accede al parque desde el Polígono 27*

#### • Astigarraga

Petritegi sagardotegitik igarotzen den errepeida hartu / *Por la carretera que pasa por la sidrería Petritegi*

#### • Pasaia

Molinao errekan gora doan bidea hartu / *Por el camino que transcurre paralelo a la regata de Molinao.*

#### • Altza

Autopista gainetik igaroz, Lau Haizeta bidegurutzera doan errepeida hartu / *Tomar la carretera que, tras cruzar la autopista, llega hasta el merendero de Lau Haizeta.*



Txipreseko oinetxea.

*Casa solar de Txipres.*

### Gune interesgarriak / Puntos de interés

- Ametzagañako gotorlekua / *Fuerte de Ametzagaña*
- Uba erreka / *Regata Uba*
- Uba eraikina / *Edificio Uba*
- Antondegiko gaina / *Alto de Antondegi*
- Zutarría / *Monolito*
- Txoritokietako gotorlekua, lapiaz / *Fuerte y lapiaz de Txoritokieta*
- Pagadia, trikuharria eta karobia / *Hayedo, menhir y calera*
- San Markos gotorlekua / *Fuerte de San Marcos*
- Kutarroko bateria / *Batería de Kutarro*
- Saguape erreka / *Regata de Saguape*
- Txipres baserria / *Caserío Txipres*
- Gazteluko galtzada / *Calzada de Gaztelu*
- Pelegríne baserria / *Caserío Pelegríne*
- Marrus baserria / *Caserío Marrus*

## HISTORIA APUR BAT

Donostiako udalerrian, bi eraikin aurkituko ditugu antzinan Santio Bidearekin zerikusia izan zutenak: **Txipres** eta **Pelegriñene** baserriak. Txipres zimentu sakoneko oinetxea da, ziurrenik dorretxe izandakoa. Gotiko garaiko lehia eta ate ojibal bana ageri dira bere fatxadan eta etxeako ganbaran San Jeronimoren 1.5m-ko tamaina duen egurrez landutako irudia dago gordeta. Eraikin hau garai batean tenplarioen monastegi izan bide zen, Santio Bideko erromesei aterpe ematen ziena.

Oinetxearen mendebaldean, Zilargiñene erreka zeharkatu ondoren, **Gaztelueneko Galtzadarekin** topo egingo dugu. 50. hamarkada bitartean eraibili den gurdibide honen jatorria XIV eta XV mendeetan kokatzen da. Inguruko bide-sarearen lotune garrantzitsua izan den bide hau duela gutxi zaharberritu dute. Bide honetan gora eginez, galtzadaren izen bereko baserrira ailegatuko gara. Hemen Txirrita bertsolaria bere azken urteetan bizi izan zen.

Aurrera jarraituz gero, lau Haizeta parkea W-E norabidean zeharkatzen duen errepidearen bazterrean eraikita dagoen Amueder baserria aurkituko dugu. Hau, Patxiku Amueder ezizenaz ezaguna zen Frantzisko Arzak Arana (1859-1928) bertsolariaren jaiotetxea izan zen.

Errepidean aurrera mendebalderantz eginez, eta beste bi baserri igaro ondoren, aurrez aipatutako **Pelegriñene** baserria ikusiko dugu. Baserri hau, bere izenak dioen bezala, garai batean Santio Bideko erromesen ostatu izan zen. Oraindik ere, albo-horma batean sartuta harrizko gurutze bat mantentzen du, antzinako garien oroigarri.

Azken honetatik gertu **Lau Haizeta** taberna aurkitzen da, parkeareki izena eman dion bidegurutzearan bertan eraikia. Puntu honetatik Altzara daraman errepidea abiatzen da.

Azkenik, Astigarragako udalerrian badago aipatu beharreko bide-tartea bat: Martuteneko 27 Poligonoa eta Usategieta baserria (Donostiako ur edangarria arazten duen plantatik gertu dagoena) lotzen dituen bide-zati hau txit gomen-dagarria da, ezen **Antondegiko Gaietik**, zati honetako puntu gorenetik alegia, goza daitezkeen bistak primerakoak baitira.

## UN POCO DE HISTORIA

*Dentro del municipio de Donostia, encontramos 2 edificios reseñables por su vinculación al Camino de de Santiago, que son Txipres y Pelegriñene. Txipres es una Casa Solar Armera de profundos cimientos, que probablemente constituyó una Casa Torre, en la cual llaman la atención una ventana y una puerta ojivales (góticas). En el desván de la casa se guarda una talla de imaginería de San Jerónimo, tallada en madera y de 1.5 m de altura. Parece ser que esta edificación fue en su tiempo un Monasterio templario que amparaba a los peregrinos.*


*Al W de esta casa solar, y atravesando la regata Zilargiñene, nos encontramos con la Calzada Medieval de Gazteluene, recientemente restaurada, cuyo origen se sitúa en la Baja Edad Media, entre los siglos XIV y XV. Remontando este camino, llegamos al caserío del mismo nombre, donde vivió en sus últimos años el bertsolari Txirrita.*

*Si continuamos hacia adelante, alcanzamos el caserío Amueder, que está situado a orillas de la carretera que atraviesa la parte central del parque de W a E. Aquí nació Francisco Arzak Arana (1859-1928), notable bertsolari también conocido por Patxiku Amueder.*















*Siguiendo carretera adelante en dirección W, y después de rebasar otros dos caseríos, encontramos a mano izquierda, el anteriormente citado caserío Pelegriñene, que constituyó un antiguo Hostal para descanso de los peregrinos que recorrían el Camino de Santiago. Aún conserva en un lateral una cruz de piedra incrustada.*

*Próximo a este último, se encuentra el merendero Lau-Haizeta, situado en el cruce de caminos que da nombre al parque y del cual parte la carretera de acceso a Altza.*

*Por último, en el municipio de Astigarraga, encontramos un tramo del paseo propuesto que discurre entre el Polígono 27 de Martutene y el caserío Usategieta, próximo a la planta potabilizadora de aguas de Donostia. Se trata de un trayecto muy recomendable debido a las estupendas vistas que proporciona a su paso por la cumbre de Antondegiko Gaieta.*



ANIZA S.A.L. Lasarte-Oria

	<b>Megalitoa</b> Megalito		<b>Zubia</b> Puente		<b>Bidea</b> Camino		<b>Antena</b> Antena
	<b>Ibilbidea</b> Itinerario		<b>Irispidea</b> Acceso		<b>Udal mugalerra</b> Límite municipal	<b>D</b>	Donostia
	<b>Iturria</b> Fuente		<b>Karobia</b> Calera		<b>Ur-depositoia</b> Depósito de agua	<b>A</b>	Astigarraga
	<b>Dolina</b> Dolina		<b>Lapiaza</b> Lapiaz		<b>Harrobia</b> Cantera	<b>E</b>	Errenteria
					<b>Parke-eremua</b> Area de Parque		

## GOTORLEKUEN IBILBIDEA

Astigarraga, Donostia eta Errenteriako nekazal lurak zeharkatzen dituen ibilbide interesgarri bezain luze honek gida hau osatzen duten gainerantzeko hiru ibilbideak elkartzen ditu. Beraz, ibilaldia bere osoan eginez gero, **Ametzagaña, San Markos, eta Txoritokietako gotorlekuak** bisitatzearaz gain, barnean azalduko ditugun hainbat gune interesgarri ikusteko aukera izango dugu.

## ITINERARIO DE LOS FUERTES

*Este interesante y largo recorrido, que discurre por áreas rurales de Astigarraga, Donostia y Errenteria, es el resultado de la unión de los otros 3 itinerarios que forman parte de esta guía. Por esto, si se decide recorrerlo en su totalidad, además de visitar los 3 fuertes característicos -Ametzagaña, San Markos y Txoritokieta-, los dos monumentos megalíticos, y otros elementos ya citados en el resto de los itinerarios, podremos también acceder a otros puntos de interés que seguidamente se mencionan en el interior.*



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de Donostia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA  
ETA INGURUGIRO SAILA  
Ingurugiro Sailordetza

DEPARTAMENTO DE URBANISMO,  
VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE  
Viceconsejería de Medio Ambiente

# haizea

*Ikerketa Dokumentazio Zentrua*

Peña y Goñi, 13 - 1º - 20002 - Donostia - ☎ 320914 - Fax 321781


**Lau Haizeta Koordinakundea**  
**Coordinadora Lau Haizeta**

LAU HAIZETA INGURUAK BISITATUZ



VISITANDO EL ENTORNO DE LAU HAIZETA

# *Txoritokieta*




*Txoritokieta mendiaren bista orokorra  
Vista general del monte Txoritokieta*

● *ibilbidea* ●

## IBILBIDEARI BURUZKO OHARRAK

### Ibilbidearen ezaugarriak / Características del itinerario

- Desmaila / *Desnivel*: 142 m
- Distantzia totala / *Distancia total*: 5 km
- Ibilaldiaren iraupena / *Duración del recorrido*: 1.5 h



Txoritokieta Gotorlekua.

Fuerte de Txoritokieta.

### Irispideak / Accesos


#### • Astigarraga

- Oiartzun-Astigarraga errepidean, Taula-Azpiko kurbatik abiatuz, Usategieta baserrira igotzen den errepidea hartu / *Carretera Oiartzun-Astigarraga, a partir de la curva Taula-Azpi, tomar la carretera que sube al caserío Usategieta.*

- Perurena Bentatik, Txoritokieta mendian gora, Floreaga baserri-rantz doan errepidea hartu / *Desde Venta Perurena, tomar la carretera que remonta la ladera de Txoritokieta en dirección al caserío Floreaga*

#### • Zamalbide

Sareaburu baserriaren parean, Ondartxabalera daraman pista hartu. *A la altura del caserío Sareaburu, coger la pista en dirección a Ondartxabal.*



Harrobiak.

Canteras.

### Gune interesgarriak/Puntos de interés.

- Aitzetako Zabalako trikuharria / *Dolmen de Haitzetako Zabala*
- Karobia / *Calera*
- Txoritokieta zutarria / *Menhir de Txoritokieta*
- Txoritokieta gotorlekua / *Fuerte de Txoritokieta*
- Lapiaz / *Lapiaza*



Zutarria.

Menhir.



## HISTORIA APUR BAT

**Txoritokietako Gotorlekua** ibilaldiaren punturik gorenean aurkitzen da eta altuera xumean, 312 m-tan alegia, aurkitzen den arren bertatik goza daitezkeen bista ederrak ustekabekoak eta txundigarriak suertatzen dira bisitariarentzat.

Bai gotorleku hau eta baita apur bat iparralderago kokatuta dagoen San Markos-ekoia ere XIX mendean, 2. Karlistada bukatu ondoren, eraiki ziren, etorkizuneko guda posibleetan defentsa-elementuak izateko xedez. Ez dute, baina, funtzio hori sekulan bete eta azken urteotan abandonoan utzi dira. Gaur egun zaharberritze-lanei ekin zaie.

Trikuharria eta zutarria kontserbazio-egoera onean aurkitzen dira, Gipuzkoako altitude txikieneko estazio megalitikoak osatuz (monumentu biak 275 m-tik behera aurkitzen dira).

**Aitzetako Zabalako** trikuharria Erreterriako udal barrutian aurkitzen da, Aitzondo baseritik gertu dagoen pagadi batean. 0.80 m-ko altuera duen tumulu baten gainean dago eraikita, Eneolitiko-Brontze sekuentzia kultural-ekoia dela jotzen delarik. Trikuarri ondoan dagoen belardian karobi zahar bat antzeman daiteke.

**Txoritokietako Zutarria** Astigarragako udal barrutian aurkitzen da, Erreterriarenaren muga-lerroan, izen bereko muinoaren tontorretik 200 bat metroa eta Floreaga baserrira jaisten den bidezidorraren eskuinaldean. Zutarria sagarrondoak kultibatuta dituen hesitutako eremu batean aurkitzen da. 1.95 m-ko altuera dauka, 0.95 m-ko batzbesteko sekzioa eta 0.25 m-ko lodiera. Dagokion sekuentzia kulturala ondo zehaztu gabe dagoen arren, Burni Arokia dela uste da.



Hornidura-uren  
arzategiaren inguruak.

Alrededores de la  
planta potabilizadora  
de aguas.

## UN POCO DE HISTORIA


*El Fuerte de Txoritokieta se encuentra en el punto más elevado del recorrido y a pesar de su modesta altitud, 312 m, resultan sorprendentes las magníficas vistas que se pueden disfrutar desde allí.*

*Tanto este fuerte como el de San Markos, situado algo más al Norte, se construyeron tras finalizar la 2ª Guerra Carlista, a finales del siglo XIX, para que sirvieran de elementos defensivos en posibles guerras venideras. Sin embargo, no llegaron a utilizarse en ninguna guerra y en los últimos años han sido dejados en abandono. Hoy se está procediendo a su restauración.*

*El dolmen y el menhir se hallan en buen estado de conservación y conforman la estación megalítica de menor altitud de Gipuzkoa, ya que ambos están situados por debajo de los 275 m. de altitud.*

*El Dolmen de Aitzetako Zabala, se encuentra en el término municipal de Rentería, en un hayedo próximo al caserío Aitzondo. Está erigido sobre un túmulo circular de 0.80 m de altura. Se estima que pertenece a la secuencia cultural del Eneolítico-Bronce. En el prado situado junto al dolmen se pueden ver los restos de una antigua calera.*


*El Menhir de Txoritokieta está situado en el término municipal de Astigarraga, frontera con el de Rentería, a unos 200 m de la cima del monte del mismo nombre y a media ladera, a la derecha del sendero que baja al caserío Floreaga. El menhir se encuentra dentro de un recinto vallado en el que se cultivan manzanos. Tiene forma de laja, una altura de 1.95 m, sección media de 0.95 m y 0.25 m de grosor. La secuencia cultural a la que pertenece no está definida, si bien se cree corresponde a la Edad de Hierro.*



**Ibilbidea**  
Itinerario



**Aukerazko bidea**  
Camino opcional



**Irispidea**  
Acceso



**Ur-depositoa**  
Depósito de agua



**Zati maldatsua**  
Tramo pendiente



**Iturria**  
Fuente



**Megalitoa**  
Megalito



**Karobia**  
Calera



**Harrobia**  
Cantera




**Lapiaza**  
Lapiaz



**Antena**  
Antena



**Dolina**  
Dolina



**Parke-eremua**  
Area de Parque

## SAN MARKOSEKO IBILBIDEA

Ibilbide honek paseabide zirkular atsegina eskaintzen digu Astigarraga eta Errenteriako baserri-erremuetan zehar.

Ibilbidearen hegoaldean bidea ubide baten gainean egina dagoenez, ez du desmailarik eta oso eroso suertatzen da bertan zehar ibiltzea. Zati horren atzetik datozen bide-tarteak maldatsuak dira eta ibilbidearen hiru puntu nagusietara hurbiltzen gaituzte: Txoritokietako Gotorlekua, Aitzetako Zabalako Trikuharria eta Txoritokietako Zutarria.

Paseo honek eskaintzen digun landaredia landazabaleko paisaiak izaten duen tipikoa da: belardiak, frutarbolen kultiboak, basoskak eta pinu zein haritz amerikarrez birpopulatutako sailak ikusten dira nonahi. Amaitzeko, ibilbide honetan pagoak agertzea gauza txit aipagarria da, ezen geografikoki dagokien altituden baino askozaz beherago aurkitzen baitira.

## ITINERARIO DE SAN MARKOS

*Este itinerario nos ofrece un agradable paseo circular que discurre por áreas rurales de los municipios de Astigarraga y Rentería.*

*En su parte Sur el recorrido posee un trazado cómodo y sin desnivel, abierto sobre una conducción de agua. Este tramo está seguido de otros senderos de mayor pendiente, los cuales nos acercan a los 3 elementos más característico de esta ruta: el Fuerte de Txoritokieta, el Dolmen de Aitzetako Zabala y el Menhir de Txoritokieta.*

*La vegetación que nos ofrece este paseo es característica de un paisaje de campiña: atraviesa alternativamente prados, cultivos de frutales, bosquetes y plantaciones de pino insignis y roble americano. La presencia de hayas en las proximidades del dolmen es otro hecho digno de mención, por hallarse éstas en una altitud muy inferior a la de su óptimo biogeográfico.*



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de Donostia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA  
ETA INGURUGIRO SAILA  
Ingurugiro Sailordetza

DEPARTAMENTO DE URBANISMO,  
VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE  
Viceconsejería de Medio Ambiente

# haizea

*Ikerketa Dokumentazio Zentrua*

Peña y Goñi, 13 - 1º - 20002 - Donostia - ☎ 320914 - Fax 321781


**Lau Haizeta Koordinakundea**  
**Coordinadora Lau Haizeta**

LAU HAIZETA INGURUAK BISITATUZ



VISITANDO EL ENTORNO DE LAU HAIZETA

# San Markos




San Markos gotorlekua / *Fuerte de San Markos*

● *ibilbidea* ●

## IBILBIDEARI BURUZKO OHARRAK

### Ibilbidearen ezaugarriak / Características del itinerario

- Desmaila / Desnivel: 220 m
- Distantzia totala / Distancia total: 4.5 km
- Ibilaldiaren iraupena / Duración del recorrido: 1.5 h
- Oharra / Nota: Saguape erreka eta Bordaberri baserriaren arteko tarteak landarediak erdijandako zati estuak dauzka / *el trayecto entre Saguape erreka y el caserío Bordaberri posee tramos estrechos invadidos en parte por la vegetación.*



Lubanarroa eta sarrera.

Foso y puerta de entrada.

### Irispideak / Accesos

#### • Beraun:

Autopista gaineko zubitik: San Markos zabortegira daraman erre-pidea hartu eta Txipres-Telleri bidegurutzera iristerakoan ezkerretara hartu. / *Puente sobre la autopista: por la carretera que accede al vertedero de San Marcos. A la altura del cruce Txipres-Telleri tomar a la izquierda hacia las ruinas de Saraburu.*

#### • Pontika-Zamalbide errepeida:

Masti poligono industrialaren parean, Txirrita baserri aurretik pasatzen den bidea hartu, Saguape erreka iristeko. / *A la altura del polígono de Masti, tomar el camino, que pasando por el caserío Txirrita, accede a Saguape erreka.*

#### • Zamalbide:

Sareaburu baserriaren parean, Ondartxabalera daraman pista hartu. *A la altura del caserío Sareaburu, coger la pista en dirección Ondartxabal.*



Saraburuko ahurriak

Ruinas de Saraburu.

### Gune interesgarriak / Puntos de interés

- San Markos gotorlekua / *Fuerte de San Markos*
- Kutarroko bateria / *Batería de Kutarro*
- Saraburu
- Saguape erreka / *Regata Saguape*
- Txabarako sorburua / *Manantial de Txabara*

## HISTORIA APUR BAT

Aspaldi batean, gaur egun gotorlekua aurkitzen den leku berean, **Ama Madalen ermita** zegoen, San Klemente bezala ere ezagutua. Bertan **San Markosen irudia** aurkitzen zen, debozio handikoa Erreterian, eta mendiari zein gotorlekuari izena eman ziona. Nahiz eta gaur egun baselizaren harririk ez geratu, oraindik ere urtero San Markos egunean erromeria ospatzen jarraitzen da bertan.

San Markoseko gotorlekuaren eraikitze-lanei 1884 urtean, Luis Nieva kapitainaren eskutik, eman zitzaien hasiera. 1888an lanak ia amaituta zeuden eta urte horretan bertan San Markoseko hegomen-debaldean aurkitzen den Txoritokietako gotorlekua ere eraiki zeza-la eskaini zitzaion Luis Nievari.

San Markoseko gotorlekua hainbat egituraz dago hornituta, hala nola, bateria, biltegia, ofizialentzako gela, patio eta lubanarroaz. Oso trebeki eraikita dagoela esan daiteke, arkitektura-obra bikaina izanik. Bere aurrean bateria osagarria aurkitzen da, Kutarro mendian kokatua, gotorleku nagusirako irispidea babesteko xedez egina. 1993-94 urteetan gotorlekuaren zaharberritze-lanei ekin zaie.

Ibilbidearen iparraldean, bidea albo batera utziz, Saguape erre-karen ondoan dagoen bidean barneratzea merezi du, errekek eskaintzen duen giro berezia dastatu ahal izateko. Bide honetan barrena jarraituz gero, Txirrita baserrira ailegatuko gara. Etxe honetan, Jose Mari Lujanbio Retegi, Txirrita bertsolari erreteriarra bizi izan zen txikitan.











## UN POCO DE HISTORIA

*En el mismo lugar donde ahora se encuentra el citado fuerte, existió la **Ermita de la Magdalena**, conocida también con el nombre de San Clemente. En ella se encontraba la **imagen de San Marcos**, que ha causado siempre una gran devoción en la villa de Rentería, y que llegó a dar el nombre al fuerte y al monte. Aunque hoy no queda vestigio alguno de la ermita, todavía se sigue celebrando la romería anual al lugar, el día de San Marcos.*

*Las obras para la construcción del actual Fuerte, dieron comienzo el año 1884 y fue el capitán Luis Nieva, el ingeniero encargado de hacerlo. El año 1888, la obra estaba casi finalizada y ese mismo año se le adjudicó también a Luis Nieva la construcción del fuerte de Txoritokieta, que se halla próximo y al SW del anterior. El fuerte de San Marcos, además de contener los elementos característicos de un fuerte, tal como: baterías, almacenes, estancias para los oficiales, patio y foso, también consta de un **Fortín o batería** complementaria, situada en el monte Kutarro, que servía para proteger uno de los caminos que conducen al fuerte.*

*Desviándonos un poco del itinerario marcado, en su parte N, podemos tomar opcionalmente un bonito y corto sendero bordeado de prados y árboles que transcurre paralelo a la regata Saguape. Este sendero nos conduce hasta el caserío Txirrita, lugar en el que habitó durante su infancia Jose Mari Lujanbio Retegi, el bertsolari Txirrita.*



- |   |   |   |   |   |  |
|---|---|---|---|---|--|
|  | <b>Zati maldatsua</b><br><i>Tramo pendiente</i> |  | <b>Aukerazko bidezidorra</b><br><i>Sendero opcional</i> |  | <b>Irispidea</b><br><i>Acceso</i>            |
|  | <b>Ur-depositoa</b><br><i>Depósito de agua</i>  |  | <b>Ibilbidea</b><br><i>Itinerario</i>                   |   | <b>Zubia</b><br><i>Puente</i>                |
|  | <b>Dolina</b><br><i>Dolina</i>                  |  | <b>Lapiaza</b><br><i>Lapiaz</i>                         |    | <b>Harrobia</b><br><i>Cantera</i>            |
|   |   |   |   |  | <b>Parke-eremua</b><br><i>Area de Parque</i> |

## SAN MARKOSEKO IBILBIDEA

Ibilaldi honek Errenteria eta Donostia aldeko nekazal lurak zeharkatzen ditu, San Markos muinoari itzulitua eginez.

Ekialdeko bide-tarteak mendiaren hegala zeharkatzen du gora nahiz behera egin gabe. Gainerantzeko tarteak, berriz, gailurrean aurkitzen den **San Markoseko gotorlekura** daramaten bideak, batipat, aldapatsuagoak, eta batzuetan irristakorrak ere dira.

Ibilaldian zehar belardi, sastrakadi, berriki birpopulatutako hostoerorkorren sailak, haritz zein gaztainondo-basoskak eta pinadiak ikusiko ditugu.

## ITINERARIO DE SAN MARKOS

*Este paseo se desarrolla por el entorno rural de Rentería y de Donostia, dando un completo rodeo al monte de San Markos.*

*Su trazado más oriental, discurre en todo momento a media ladera, si bien el resto del itinerario presenta mayor pendiente, permitiéndonos acceder hasta la cima del monte, que se encuentra coronada por el Fuerte de San Markos.*

*El paisaje que nos rodea en el transcurso del paseo está compuesto de matorrales, plantaciones recientes, bosquetes de robles y pinares.*



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de Donostia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA  
ETA INGURUGIRO SAILA  
Ingurugiro Sailordetza

DEPARTAMENTO DE URBANISMO,  
VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE  
Viceconsejería de Medio Ambiente

# haizea

*Ikerketa Dokumentazio Zentrua*

Peña y Goñi, 13 - 1º - 20002 - Donostia - ☎ 320914 - Fax 321781

**Lau Haizeta Koordinakundea**  
**Coordinadora Lau Haizeta**



LAU HAIZETA INGURUAK BISITATUZ



VISITANDO EL ENTORNO DE LAU HAIZETA

# Ametzagaña



Gotorlekuaren bista orokorra / Vista general del fuerte

● *ibilbidea* ●

## IBILBIDEARI BURUZKO OHARRAK

### Ibilbidearen ezaugarriak / Características del itinerario

- Desmaila / *Desnivel*: 78 m
- Distantzia totala / *Distancia total*: 3 km
- Ibilaldiaren iraupena / *Duración del recorrido*: 3/4 h



Gotorlekuaren barnealdea.

*Interior del fuerte.*

### Irispideak/Accesos

#### • Intxaurrondo

- Tuniz-etxeatik (Otsoki) sartuz / *Entrando por Tuniz-Etxea (Otsoki)*
- Beharkoko rotondatik, Igotatxo baserriaren aldamentik irteten den pista hartuz / *Rotonda de Beharko, tomando la pista que parte junto al caserío Igotatxo \**

#### • Loiola

- Txomin-Eneako zubitik / *Por el puente de Txomin-Enea*

\* Lauko baserrira iristerakoan, ireki ezinezko langa batekin topo egingo dugu. Hesi hori gainditzeko, eskuin aldean dagoen burniz-beste langa baten zehar pasatu eta baratz arteko bideska batek beste aldera eramango gaitu. Txakurrak arriskugabeak dira. *Llegando al caserío Lauko, nos encontraremos con una valla sin acceso que es posible sortear dando un pequeño rodeo, atravesando una verja de hierro que se encuentra a su derecha. El perro es inofensivo.*



Uba eraikina.

*Edificio Uba.*

### Gune interesgarriak/Puntos de interés

- Uba erreka / *Regata Uba*
- Uba eraikina / *Edificio Uba*
- Plazentzi baserria / *Caserío Plazentzi*
- Ametzagañako gotorlekua / *Fuerte de Ametzagaña*

## AMETZAGAÑAKO IBILBIDEA


Ibilbide honetan Ametzagaña mendia inguratzen da, izen bereko gotorleku baten ahurrietatik pasatuz. Ametzagaña gotorlekua muinoaren gailurrean kokatuta dago, berau izanik ibilbidearen punturik garaiena, bista ederrak eskainiz.

Gotorleku hau Donostiako defentsa-lerro zaharraren atala izan zen, bere gaurko itxura XIX. mendearen hasierako eraikuntza-lanei zor zaielarik. Hobi edo lubanarro batez dago guztiz inguratuta eta bere HE-ko ertzean sarrera bat dauka ranpan eraikitako pasilo estu moduan.

Ametzagaña 1841ean Gasteiz eta Irun bitartean eraikitako telegrafo optikoaren lerroko kokaguneetako bat izan zen. Telegrafo honek xede militarra zuen.

Loiola eta Intxaurrendoko auzoak lotzen dituen ibilbide honetan zehar Plazentzi baserria, arkitektura ikusgarria duena, eta Ubako erreformatorio zaharra ezagutu daitezke, besteak beste. Azken honen kaperan "Lo Oneko Ama"-ren imajina aurkitzen da, garai batean **Ubako Ama Birjiñaren Ermitan** egon ohi zena. Gaur egun ermitaren fatxada eta alboko orma bat besterik ez da gelditzen, erreformatorioaren eraikinaren atal gisa.

Bideak ondo markatuta daude orokorrean; beren ibileran iratze-diak eta haritz-basotxoak zeharkatzen dituzte eta Ubako errekas-toa gurutzatzerakoan ibai ertzeko landaredia errepresentagarria ikusteko aukera eskaintzen dute.



Gotorlekuaren iparmendebaldeko murua.

Muro noroeste del fuerte.

## ITINERARIO DE AMETZAGAÑA


*Este itinerario discurre por los alrededores del monte Ametzagaña y las ruinas de un antiguo fuerte del mismo nombre, situadas en la parte más alta del recorrido, desde donde se pueden ver interesantes vistas panorámicas.*

*Este fuerte perteneció a la antigua línea defensiva de Donostia, correspondiendo su aspecto actual a obras de principios del siglo XIX. Todo su contorno está recorrido por un foso y tiene acceso por la base de la esquina SE en un estrecho pasillo en rampa.*

*Ametzagaña fue uno de los emplazamientos de la línea de telegrafo óptico de uso militar que se instauró en 1841 entre Gasteiz e Irun.*

*A través de este itinerario, que comunica los barrios de Loiola e Intxaurrendoko, se pueden conocer entre otros, el caserío Plazentzi, de vistosa arquitectura, y el antiguo reformatorio de Uba, que se construyó encima de los restos de la **Ermíta de Nuestra Señora de Uba**, de la que hoy sólo se conserva la fachada y un lateral. En la capilla del reformatorio se conserva la imagen de "la Virgen del Dulce Sueño", que pertenecía a la antigua ermita.*

*Los senderos del paseo están por lo general bien marcados, van atravesando prados, bosquetes de robles, y es reseñable también la vegetación de ribera que podemos encontrar en la regata Uba.*



ANIZA S.A.L. Lasarte-Oria



**Ibilbidea**  
Itinerario



**Aukerazko bidea**  
Camino opcional



**Irispidea**  
Acceso



**Zubia**  
Puente



**Parke-eremua**  
Area de Parque



**Zaldi-tokia**  
Hípica



**Hildako soldadua**  
oroimenean ipinitako gurutzea  
Cruz a un soldado muerto



**Zati maldatsua**  
Tramo pendiente



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de Donostia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA  
ETA INGURUGIRO SAILA  
Ingurugiro Sailordetza

DEPARTAMENTO DE URBANISMO,  
VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE  
Viceconsejería de Medio Ambiente

*haizea*

*Ikerketa Dokumentazio Zentrua*

Peña y Goñi, 13 - 1º - 20002 - Donostia - ☎ 320914 - Fax 321781

**Lau Haizeta Koordinakundea**  
**Coordinadora Lau Haizeta**